

# Santa Ana Igaratzan

## **Ordizia, 2020ko maiatzaren 19a**

Igaratzako paraje ederrean, artzainen igandeko mezari arreta emateko, ermita apal bat eraiki zen 1946an. Gero, handitu eta txukundu egin zen, eta 1947ko irailaren 21ean inauguratu zen, Aralarko Adiskideak elkarteak sustatuta, Arantzazuko Ama Birjinaren babespean eta Lazkaoko komentuko aita Alberto beneditarra kapilaua izanik.

1954an Ordiziako Mendizaleak elkarteak bere lokal soziala inauguratu zuen eta Zuzendaritza Batzordeak, egoera aprobetxatuz, Santa Anaren irudia Igaratzako kaperan jartzea pentsatu zuen, horrela Aralar Ordiziako patroiarekin eta bere mendizaletasunarekin elkartuz.

Eskaiolazko irudia Kataluniako Olot herrian eraiki zen eta Lizarrustitik oinez eraman zuten 1954ko urte hartan bertan kaperan jartzeko.

Denboraren poderioz han jarritako irudiak hondatuz joan ziren, eta lehenik tolosarrek Arantzazuko Ama Birjina harriz berritu zuten. Santa Anaren irudia erorketaren baten ondorioz hondatu zela ikusita, mendizale ordiziarrek irudi berri bat egitea erabaki zuten, orain harrizkoa, Tomas Ugartemendia Gazteluko eskultoreari enkargatu zitzaiona.

Herri harpidetza bidez finantzatu zuten eskultura, eta aurrekontua zabal estali zuten.

2002ko ekainaren 9ko data ezarri zen Santa Anaren irudi berria lekualdatu eta tronuratzeko.

Hala ere, goiz osoan eguraldi txarra egin zuenez, ezinezkoa izan zen ekitaldi hori programatutakoaren arabera egitea.

Goizeko 8etan hiru autobus atera ziren, baina ikusita, atertzen ez zuela eta Igaratzara oinez joango zirenen artean batez ere adineko jendea zegoela, zuhurtziaz San Migeleko santutegira lekualdatu zen festa, zeinetan San Migel Kofradiaren eguna ospatzen zen.

San Migelera iritsitakoan, Inocencio Aierbe errektorearekin jarri ziren harremanetan, eta hark ez zuen zalantzarik izan ekimenari babesa emateko.

Aurretik hamaiketako bat eskaini zitzaien bertaratutakoei.

Basilikaren barruan, Jesús Mari Garate buru zuten dantzari ordiziarrek aureskua eta bertaratutakoak hunkitu zituen Santa Ana dantza dantzatu zituzten. Ekitaldietako buru gure etxeakoandre beteranoenak Lupe Eguren, Felipa Unanue, Elu Gaztañaga, Isidra Usabiaga eta Iñaxi Regil izan ziren.



Ekitaldi erlijiosoak amaitu ondoren, Santos Ormaetxeak Ave Maria abestu zuen. 140 lagun bildu ziren Lekunberriko sagardotegian, Albizturko trikitilariak alaituta. Postreetan omenaldia egin zieten Jose Sarriegi, Juaquinillo Garmendia, Fernando Garate, Jesus Aierbe (Kutxo) eta Txomin Eskisabel mendizale beteranoei, lehen irudiaren sustatzaile nagusiei.

Irudia Igaratzara eramateko data berria finkatu zen, 2002ko uztailaren 7a.



Oraingoan autobus bat abiatu zen eta San Fermin egun hura klimatologikoki egun bikaina izan zen. San Migelen irudia jaso eta Igaratzara eramán zuten.



Prozesio txiki bat antolatu zen eta mendizaleek irudia sorbaldá gáinean eramanez aldarean jarri zuten, bertan zeuden guztien emoziorako.



Jarraian meza bat eskaini zen eta eguerdian etxera itzuli ziren, ondo egindako lanarekin pozik.

**Ordiziako Mendizaleak**